

**AGINDUA, HEZKUNTZAKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ AURRETIKO KONTSULTA EGITEN BAITA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HEZKUNTZA-SISTEMAN ETA FUNTS PUBLIKOekin ORDAINTZEN DIREN UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IKASTETXEETAN BIZIKIDETZA POSITIBOA ERAIKITZEA ARAUTZEKO XEDAPEN OROKORRA EGITEARI BURUZ**

2022ko uztailaren 15ean, Xedapen Orokorrak egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legea argitaratu zen EHAAn. Lege horrek testu artikulatu oso eta berri batean sartzen eta biltzen ditu xedapen orokorrak egiteko prozeduraren arloko arau guztiak, eta orain arte indarrean zegoen Legea ordeztzen du, 8/2003 Legea, abenduaren 22koa, Xedapen Orokorrak egiteko Prozedurari buruzkoa.

Zehazki, 11. artikuluan, zeina herritarrei alde aurretiko kontsulta egiteari buruzkoa baita, hau zehazten da:

“1. Xedapen orokorraren izapidetzea sustatzen duen organoak edo zuzendaritza-zentroak, testu juridiko arauemaileen proposamenak idatzi baino lehen, kontsulta publikoaren bidez bilduko du gizarteak duen iritzia. Herritarrei zuzendutako alde aurretiko kontsulta-izapide horretan, beharrezko neurriak hartuko dira, ziurtatzeko, batetik, gizon eta emakumeen ordezkartza orekatua, eta, bestetik, arautzekoa den alorrean edo sektorean berdintasuna bultzatzen duten elkarten parte-hartzea. Halaber, hizkuntza-eskubideak errespetatuko zaizkio alde aurretiko kontsultetan parte hartzen duen orori, Administrazio langile zein herritarra izan.

2. Alde aurretiko kontsulta kapitulu honetan araututako prestaketa-fasean sartzen da. Izan ere, herritarrekiko interakzio izapidea da, zeina halako moldez egingo baita, non xedapenaren hartzaille izan daitezkeen pertsona guztiek aukera izango duten iritzia emateko, behar besteko epean, berau hamabost egun baino gutxiagokoa izan gabe, eta testu juridiko jakin bat onartu baino lehen.

3. Alde aurretiko kontsultaren izapidea xedapen orokorraren izapidetzea sustatzen duen zuzendaritza-zentro edo -organoak bete ahal izango du, iragarkia Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan jarrita. Alderdi hauekin lotutako informazioa iragarriko da: araua onestearen premia eta egokitasuna, arauaren xedeak, ekimen horrekin konpondu nahi diren arazoak eta izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak; eta herritarrei gonbidapena egingo zaie iragarritako informazioari buruzko iritzia eman dezaten.

4. Artikulu honetan aurreikusitako herritarren parte-hartzearen eskakizuna betetzat jo dezake testu juridiko arauemaile bat alde aurretik onetsi ondorengo araugintza-prozedurako instrukzio-faseko entzunaldi eta informazio publikoen izapideak. Memorian horrela jasota utzi beharko da, hala bada.”

Hezkuntza Sailak aurreikusita dauka Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sisteman eta funts publikoekin ordaintzen diren unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetan bizikidetza positiboa eraikitzeari buruzko dekretu-proiektua egiten hastea.

Xedapen Orokorrak egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearekin bat etorri, herritarrek araudia egiteko prozeduran parte har dezaten sustatze aldera, arau-proiektua egin



baino lehen, kontsulta publikoko aldi bat irekitzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren web-atariaren bidez, herritarren iritzia eta etorkizuneko araudiaren eragin handiena jasango duten erakunde esanguratsuenen iritzia jaso ahal izateko, honako gai honekin lotuta:

1.- Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharreri buruzko abenduaren 2ko 201/2008 Dekretua, indarrean sartu zenez geroztik, oso lagungarria izan da hezkuntza-jardueraren eremu batzuk bultzatu eta antolatzen; hain zuzen ere, eremu hori horiek zuzenean lotuta daude EAEko hezkuntza-sistemako eta hori osatzen duten ikastetxeetako bizikidetzarekin. Eta hori hala izan da honako honi dagokionez: bai ikasleen eskubideak eta betebeharrak arautzea, bai hiru portaera-tipologiak —desegokiak, kontrakoak eta bizikidetzarako oso kaltegarriak direnak— eta horiek zuzentzea, ahal izanez gero bide alternatiboak erabilia, hala nola kontziliazioa, erreparazioa edo hezkuntza-konpromisoak, eta, aurrez baloratutako inguruabar batzuetan bakarrik, neurri zuzentzaileak aplikatzeko ohiko edo ezohiko prozedurak erabilia.

Hala ere, hura argitaratu zen urteaz geroztik, zenbait aldaketa egon dira, eta horien ondorioz, aldaketa sakonak egin behar dira 201/2008 Dekretua ordeztu behar duen arau berrian. Premia hori ikusteaz gainera, aurreko arauan testatutako alderdi positiboekin jarraitzea aukeratu da egindako proposamenean, betiere alderdi horiek orain ere egungo hezkuntza-errealitatera egokituta daudela eta datozen hamarkadetan ere egokituta egongo direla uste baldin bada.

Aldatzeko arrazoietan lehena, ikastetxeek lan egiten duten testuinguru sozioedukatiboa aldatu izana da; izan ere, nabarmena da 201/2008 Dekretuak Lehen Hezkuntzaren eta Bigarren Hezkuntzaren artean ezarri zuen banaketa ageria lausotu egin dela denboraren joanean. Bigarrenik, izendapen batzuk eguneratzeko premia; prozedura horien izena aldatu egin behar da, eta horien ordeztuak aldatzeko esku-hartze edukatiboko neurriak izendapena erabili, askoz hobeto egokitzen baita proposamenean jasotzen den bizikidetzaren positiboa garatzeko behar diren aginduen mamiarekin eta formarekin. Hirugarrenik, alderdi batzuk erreformatu beharra, hala nola portaerak zuzentzeko bide alternatiboak, portaerak zuzentzeko prozeduren aplikazioa eta/edo kontuan hartzea eskubideak baliatzea eta betebeharrak betetzea hezkuntza-komunitateko sektore guztietan, ez bakarrik ikasleei dagokienez. Laugarrenik, bizikidetzaren positiboaren alderdi prebentiboak eta probentiboak lehentasunez heltzeko premia. Eta bosgarrenik, ikasle bakoitzaren beharrei egokitutako erantzun edukatiboak etengabe bilatu beharra.

Horregatik guztiatik, beharrezkoa da arau-esparrua eguneratzea, gure hezkuntza-sisteman bizikidetzaren positiboa eraikitzeko prozesua babesteko duena.

2.- Proiektatutako erregulazioaren beharra eta indarrean dagoen araudia

Orain arte, bizikidetzaren positiboa zenbait arauen bidez arautu da:

- 201/2008 Dekretua, abenduaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharreri buruzkoa. Dekretu horrek nabarmen lagundu du hezkuntza-jardueraren eremu batzuk bultzatu eta antolatzen; eremu horiek, hain zuzen ere, zuzenean lotuta daude EAEko hezkuntza-sistemako eta hori osatzen duten ikastetxeetako bizikidetzarekin.

- 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, Haurrei eta nerabeei indarkeriaren aurrean babes osoa emateari buruzkoa. Lege horren bidez, haurren eta nerabeen kontrako indarkeria-forma guztiak erauzi nahi dira.
- 17/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzarena. Bizikidetza positiboaren balioa EAEko hezkuntza-sistema antolatzen duen ardatz edo oinarri bat da, I. tituluaren III. kapituluan arautua, “*Xedapen orokorrak*”. Bestalde, II. tituluaren III. kapitulua, “*Hezkuntzarako eskubidea eta bizikidetza positiboa*”, bizikidetza positiboari buruzkoa da, eskola askotariko, inklusibo, berdintasun-sustatzaile, koedukatio eta kulturartekoaren ardatza den aldetik.

3.- Arauaren helburuak

Proposamen honen helburua EAEko egungo arau-esparrua ordeztzea da, bizikidetza positiboaren eremuari dagokionez, zeina abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuan eraturik baitago (201/2008 Dekretua, EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxetako ikasleen eskubideei eta betebeharreri buruzkoa).

Bizikidetza positiboaren eremua arautzeari buruzko proposamenaren helburua EAEko ikastetxetako hezkuntza-jardueraren alderdi hauek arautzea da, haren aplikazio-eremuan eta EAEko hezkuntza-sisteman:

- a) Bizikidetza positiboa garatzea, I. kapituluan aurkeztutako proposamenaren ezarritako baldintzekin.
- b) Bizikidetza positiboa garatzeko esku-hartzeen esparru orokorra, eta bizikidetza nahasten duten portaerak, hurrenez hurren II. eta V. kapituluetan jasotako proposamenetik datozen aginduekin bat etorriz. Gainera, VI. kapituluan, hezkuntza-neurriak arautzea proposatzen da, bizikidetza positiboa nahasten duten ikasleen portaerei dagokienez.
- c) III. kapituluan, antolaketa- eta funtzionamendu-egiturak daude, ikastetxeek eta hezkuntzaren eskudun den sailak abian jarriko dituztenak, bizikidetza positiboa kudeatzeko eskumenak eta funtzioak ordenatuta eta efikaziaz banatuko direla bermatzeko.
- d) Ikasleen eta hezkuntza-komunitateko gainerako sektoreen eskubideak eta betebeharrak, dekretu-proposamenaren IV. kapituluan ezarritako baldintzekin.

4.- Egon daitezkeen irtenbide alternatiboak: arautzekoak eta ez arautzekoak

Bi alternatiba posible daude: batetik, “*ekintzarik eza*”, hau da, egungo arau-egitura mantentzea, eta, bestetik, Dekretu berri bat onartzeko aukera, arau-esparrua hobetzea ahalbidetuko duena, bizikidetza positiboa eraikitzen laguntzeko.

Guztiz baztertu da “*ekintzarik eza*” aukera, horren ondorioa hobekuntza globalaren prozesua gelditzea bailitzateke; EAEko hezkuntza-sistemak, ordea, nahitaez jarraitu beharra dauka prozesu horretan.

Beraz, beste dekretu-proiektu bat tramitatzen hasia aukeratu da. Izan ere, araua eguneratzeko proposamena biderik onena da EAEko hezkuntza-sistema eskola inklusibo eta berritzaile bat lortzeko proposamenetara behar bezala egokitzen dela bermatzeko.

Horregatik guztiagatik, kontsulta:

- Erakunde publiko eta pertsona fisiko guztientzat irekitzen da, bai eta etorkizuneko arauzko erregulazio honek ukitzen dituela uste duten erakunde, entitate edo elkarteentzat ere.
- Argitaratuko da EAEko Administrazio Orokorreko web-atarian, EAEko Administrazio Publikoko Egoitza Elektronikoko iragarki-taulan, Legegunean eta Irekian.
- Hamabost egun balioduneko epea ezartzen da, ukitutako erakundeek, herritarrek eta haien entitateek iradokizunak eta oharrak aurkez ditzaten, egokituz joz gero.

Kontsulta publikoaren tramite hori da, beraz, une honetan bideratzen ari garena, aurreikusitako lege-eskemari jarraituz. Gainera, arau-proiektua egin baino lehen egin da, eta Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11. artikuluan arautzen den prestaketa-fasearen barruan.

Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuak esleitzen dizkidan eskumenei jarraikiz, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.- Kontsulta publikoaren tramitea egitea, EAEko hezkuntza-sisteman eta funts publikoekin ordaintzen diren unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetan bizikidetzak positiboa eraikitzea arautzeko xedapen orokorra egiteari dagokionez, xedapen hori prestatu baino lehen.

Bigarrena.- Herritarrek eta arauak eragindako erakundeek, hala nahi badute, Agindu honetan azaltzen diren alderdiei buruzko iritzia helaraz ditzakete, hamabost egun balioduneko epean, kontsulta EAEko Administrazio Orokorren web-atarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteizen, sinaduraren datan

Jokin Bildarratz Sorron
HEZKUNTZAKO SAILBURUA